



**ERRETERIA
UDALA**

Kirolak / Deportes

| | |
|---|--|
| Espediente zk./Nº expediente: 2023SDBD0004 | Erreg. data/Fecha reg: |
| Erreg. zk. / Nº registro: 000000 | |
| Gaia/Asunto: 2023 - KIROLAK DEPARTAMENTUKO DIRULAGUNTZA DEIALDI OROKORRA. 5.1 Dirulaguntza Lerroa: Kirol Entitateak. Urteko Ohiko Jarduerak / 5.1 Línea Subvención: Entidades Deportivas. Actividades Anuales Ordinarias | |
| Eskatzailea/Solicitante: SDBD | NAN(IFK)/DNI(NIF): 90909090A |
| Kokalekua/Emplazamiento: ERRETERIA | Dekretu zk./Nº Decreto: 2023/3133 |

JAKINARAZPENA

Jakinarazten dizut, Zinegotzi Delegatuak 2023ko abenduaren 14a datan, ondorengo dekretua eman duela:

DEKRETUA

AURREKARIAK

Kirolletako zinegotzi delegatuak 2023ko martxoaren 30ean emandako 759 zenbakidun dekretuaren bidez onartu zen "5.1 Dirulaguntza Lerroa: Kirol Entitateak. Urteko Ohiko Jarduerak / Línea de Subvención 5.1: Entidades Deportivas. Actividades Ordinarias. 2022-2023 denboraldirako.

Deialdi hori Dirulaguntzen Datu-Base Nazionalean (BDNS identif.: 686370) eta 2023ko apirilaren 20ko GAOn argitaratu zen. Horrela ezarri zen jendaurrean 2023ko abuztuaren 31an dirulaguntza eskaerak aurkezteko epea.

Hainbat elkartek jarduerak egiteko dirulaguntza eskatu dute.

Kirolak teknikariak 2023ko irailaren 26an txostena eman du.

Balorazio Mahaiak 2023ko urriaren 16an egin du proposamena.

Herritarrak Batzordea 2023ko urriaren 23an jakinaren gainean jarri zen.

Kontu-hartzaileak 2023ko abenduaren 12a datan espedientea fiskalizatu du,

ZUZENBIDE OINARRIAK

- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, 38/2003 Dirulaguntza Orokorrei buruzko Legearen Erregelamendua.
- Errenteriako udalean dirulaguntzak ematea arautzeko udal ordenantza (GAO 2015/08/10).
- 2022ko azaroaren 25an Alkateak emandako 2682 zenbakiko dekretuaren bidez onartu ziren Errenteriako Udalak 2023. urtean eta 2023-2024 ikasturtean zehar emango dituen dirulaguntzak arautzeko oinarri orokorrak



**ERRETERIA
UDALA**
Kirolak / Deportes

2022ko abenduaren 19ko Alkatetzaren 2.856 zenbakidun Dekretuaren bidez, Oinarri Orokor horietako akatsak zuzendu dira.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetu dizkidan eskumenak baliatuz, eta Udal aholkulari juridikoak espedientean jasotako dekretu-proposamenari emandako adostasunarekin.

Honen bidez,

EBATZI DUT

1.- Dirulaguntzak ematea jarraian aipatzen diren entitateei, 2022-23 denboraldian Kirol Federatuaren garapenari lotutako entitate eskatzaileen ohiko jarduera programak finantzatzeko:

| ELKARTEA | PROIEKTUA | KOPURUA |
|--------------------------------|------------------------------|--------------------|
| CD Marpex Beraun Tenis de Mesa | Denboraldiaren Finantziazioa | 1.959,42 € |
| CDN Oarsoaldea Bidasoa XXI | Denboraldiaren Finantziazioa | 2.500,00 € |
| Club Atletico Renteria- CAR | Denboraldiaren Finantziazioa | 4.618,63 € |
| Ereintza Eskubaloia | Denboraldiaren Finantziazioa | 26.382,19 € |
| Oarso TRI | Denboraldiaren Finantziazioa | 800,00 € |
| SCDR Beraun-Bera | Denboraldiaren Finantziazioa | 839,75 € |
| GUZTIRA | TOTAL | 37.100,00 € |

2.- Gastu hori 1.1530.481.01.341.10 partidaren kontura xedatzea (Zorpekoa: A-960-2023).

3.- % 100 ordaintzea, dirulaguntzen esleipena ebatzi ondoren eta aurkeztutako jarduera-programa gauzatzeko baldintzapean, egindako gastuaren justifikazioari dagokion dokumentazioa aurkeztu ondoren.

Zehazki aurkeztuko den dokumentazioa honakoa izango da, Errenteriako Udalak 2023 urte naturalean, 2023-2024 ikasturtean, dirulaguntzak ematea arautzeko Oinarri Orokorren hamazazpigarren oinarrian adierazitakoaz gain:

- Dirulaguntza jasoko duen programa edo jardueraren memoria.
- Diru-sarrera eta gastuen balantze ekonomikoa.
- Egindako gastuaren justifikanteak (fakturak) eta horien zerrenda.
- Dokumentazio grafikoa (kartelak, programak) edo ikus-entzunezkoa.
- Elkartearen edo entitatearen diruzainak izenpetutako ziurtagiria, non jasotzen diren diruz lagundutako edo programatutako jarduerak finantzatzeko laguntza guztiak; bai entitate publikoek zein pribatuek egindakoak, zein publikoak orokorrean.

4.- Ordenantza arautzailean edo dirulaguntzaren emakidan adierazitako baldintzaren bat ez betetzeak,



**ERRETERIA
UDALA**
Kirolak / Deportes

dirulaguntza berrikustea ekarriko du, eta, hala badagokio, emandako diru kopurua jaistea edo kopuru osoa itzuli beharra ere bai.

Gainera, aplikagarria den araudian agertzen diren kasuetarako, bidezkoa izango da jasotako diru kopuruak itzuli beharra, eta dirulaguntza ordaintzen den unetik itzuli egin behar dela erabakitzen den data arteko berandutza interesak eskatzea ere.

5.- Udal Aurrekontuaren kargura dirulaguntza jasotzeko, beharrezkoa da erakunde edo pertsona fisiko onuradunek, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantza eguneratua izatea, legeak horrela eskatuko balu.

6.- Ebazpen hau jakinaraztea onuradunei eta ezagutaraztea Ogasuna eta Garapen Ekonomikoa Sailari. Era berean, Dirulaguntzen Datu Basera (BDNS) bidaltzea eta Udalaren gardentasun atarian argitaratzea dirulaguntzaren honako datuak: zenbatekoa, xedea eta erakunde onuradunen izenak. Pertsona fisikoak direnean, beren identifikazio agiriaren zenbakia bakarrik argitaratuko da.

Erabaki hau behin-betikoa da eta administrazio bideari amaiera ematen dio. Dena den, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakezu, edota egoki deritzozun beste edozein errekurtsio.

NON: dagokion Administrazioarekiko auzien epaitegia.

EPEA: bi hilabetekoa, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita.

Errenterian, sinaduran agertzen den datan

Behin-behineko Idazkaria / Secretaria accidental

Ainhoa Esnaola Zubeldia



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU1195eabf-93e3-45d3-893d-a8323a3c8cc0**

Dokumentu elektronikoen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:

<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023SDBD0004-JAKINARAZPENA II eu/NOTIFICACIÓN II eu (SDBD)